# ALDERDI

UAB
CEDOC
DIPOSIT




## I ASAMBLEA GENERAL

## Discurso de Xabier Arzalluz, reelegido Presidente del EBB

# Xabier Arzalluzen Hitzaldia Arriaga 92-1-12

Egun on alderdikide maiteak. Berriz jarri nauzue Euzkadi Buru Batzarreko lehendakari bezala. Derrigorrezkoa izango da seguro asko eskerrak ematea. Baina egia esateko nik ez dizkizuet eskerrak ematen kargoagatikan, bai nigan daukazuen konfidantzagatikan eta fedeagatikan. Horregaitik bai ematen dizkizuet eskerrak. Nik uste det gaur Euzkadi Buru Batzarreko Lehendakaria izateak, datozen lau urteetarako batez ere, gauza eder bat daukala. Lau urte hauetan gure Alderdiak hainbeste egun hunkigarri pasatu behar ditu, hain zuzen ere, joango gara urtez-urte, gure oinarrian dauden egun eta fetxa garrantzitsuak berpizten.

Datorren urtean Larrazabalgo hitzaldia. Lehenengo-lehenengo, eusko abertzaletasuna, Sabinok besteen aurrean azaldu zuan unea. Larogeitamalauan, Uztailaren hamalauan, Sabinok, lehenengo aldiz, gaur egun gure Euzkadi osoko ikurriña dana jaso zuen eguna da. Hurrengoan, 94an, Uztailaren 15ean dira Euskaldun Batzokia sortu zuen egunetikan ehun urte. Eta 95ean, berriz, San Ignazio egunean, Euzko Alderdi Jeltzalea sortu zuenaren 100garren urtea.

Bide batez, aurten zabalduko dugu Sabin Etxea. Sabin etxea izugarrizko sinboloa da guretzat. Dakizuenez, hemen egon zan gobernadore takar batek abertzaletasuna hilda zegoela pentsatzen zuen. Goitik behera bota zuen etxea, bera jaio zan etxea, eta hango harri, egur, burni, ..., danak itsaso zabalean bota zituen gabarra batekin eramanda. Pentsatuko zuen seguro asko, Sabinoren aztarna amituta zegoela. Gaur burua jasoko balu horrek eta berak bezala pentsatu zuten eta indarkeriarekin hona etorri zirenek, ikusiko lukete indarrak ez duela dana egiteko ahalmenik, eta askotan atzurrak, indarrez lurra jotzen duenean, landara berriak askoz errezago sortzen direla. Indarragatikan hain zuzen. Horregaitikan datozen lau urteak guretzat garrantzitsuak dira, ez bakarrik festetarako baizikan oldozteko, pentsatzeko. Ez atzera begira gelditzeko baina bai gure sustraiak non dauden ikusteko. Nondik datozen gure urak. Nik ez det sinisten urak lehengo lekura, iturrira, bueltatu leitekezenik. Ez da posible. Baina bai da momentua pentsatzeko iturri horretatik datozen urak edateko modukoak diren ala gehiegi kutsatuta dauden. Lau urte dauzkagu, ez bakarrik gauzak egiteko, gero esango degun bezala, baizikan baita ere pentsatzeko eta, batez ere, gure gazteriak. Gure iturriak aztertzeko, begiratzeko, zer dagoen gaur oraindikan balio duena, zer oraindikan garbi eta zer erabili behar den, zer den beste garai batekoa eta alde batera utzi behar den,... Lau urteok ondo aprobetxatzen baditugu, benetan guretzat emankorrak izan daitezke. Eta urtebetetzeetaz hitz egiten nabilenez, gaur zoriondu beharko dugu gure Jesús Uzturre. Atzo ez zan honera etorri, atzo larogei urte bete zituen. Jesús, dakizuenez, beste asko bezala abertzale sutsua izan da beti. Honera etorri zan hainbeste urte kanpoan pasatuta, deskantsura. Eta tokatu zitzaion, tokatu zitzaiona. Nik ez diot behin ere esker nahiko emango, denbora latz haietan, orain urte batzuk jasan genituen gauzak jasanda, edo ari ginanean, neretzat behintzat eta nere zalantzetan eta pentsatzen det beste askorentzat ere bai, gure artean Lezaola zana, Lizaso jauna eta Jesús Uzturre egotiak izugarrizko indarra eman zidan, bide zuzenean nenbilela adieraziz. Honegatikan Jesús urte askotarako.

Ehun urte dira orduan edo ehungarren urtean sartzen ari gera, Euzkadi, Euskal Herria osoa, Nazio bezala aldarrikatu zan momentutikan. Lehen ere egon ziran, bai, Euskal Herria nazio bezala aldarrikatu zutenak, Larramendi eta beste batzu hain zuzen ere. Baina organizazio bat sortu zuena, idea hori aurrera ateratzeko eta errealitate egiteko, hori izan zan Sabino. Ordurarte zegoen, bai, Euskal herrian, nahi badezue, halako magma bat, baina ordurarte zeuden Nafarroa, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi, Zuberoa,... Ordutikan dago Euskal Nazioa hainbeste eta hainbeste bihotzetan sartuta.

Orain bat baino gehiago dabil izututa Araban halako alderdi bat, arabarra, jaio dalako, edo Bizkaian beste bat ere jaio dalako, baita ere botoak dauzkatelako. Ni ez nintzateke hainbeste izutuko. Eta hau arabarrei esaten diet batez ere. Esan behar dizuet gu 1966an hasi ginenean jartzen zetorren denboraren politikaren oinarriak, guk uste genduan Naparroan errezago gendukela Araban baino. Araba oso ilun ikusten genduan, hain zuzen ere, probintzi bezala lurgintzen sartuta zegoelako oraindikan eta beste aldetikan Gasteiz, bai kanpotik etorritako hainbeste jendez beteta zegoelako eta bai lehengo bertako, eskumako, jendeak Arabako prespektibak besterik ez zeuzkatenak, eta beti Euzkadi baten edo Euskal Nazio baten aurka egon zirenak, hainbeste zirelako.

Egia esan Nafarroan ez ginan hain ondo atera ez gendulako ondo egin baina Araban oso ondo atera ginan. Baina horrek ez du esan nahi Araban hainbeste, ez bakarrik kanpotar baizik eta bertako lehengo kutsuko jende horrek gure Nazio

Nº 4029



idea bereganatu zutenikan. Orduan alderdi haundiak, UCD bezala edo PSOE bezala, nola gure autonomia hartu zuten beraien alderdien helburu bezala, gustora edo ez gustora, eta beraiek bakarrik zeudenez, hartzen zuten gure estatutoa eta abar. Baina orduan, gauzak behar bezala ikusi genituenak garbi ikusten genduan han zegoen egoera. Eta orain hor, alderdi txiki hoietan, bere alderdietan istiluak euki eta gero sortu diren alderdiak, negar alderdiak esango genduke, lehengora begira, lehengo jendea da.




Euzko Alderdi Jeltzalea ez dihoa atzeraka Araban, aurreraka dihoa. Zer esanik ez Bizkaian. Eta hori horrela dan bitartean ondo goaz eta ez zaitezte arabarrak izutu horregaitikan. Hori bai, errealitateak ikusi egin behar dira. Eta egiten dan edozein estratejiak gutxi balio du errealitatean finkatuta ez badago. Eta hor dago kontua. Askotan guk halako Euzkadi ideal bat sortu dogu gure baitan, errealitateak ahaztuta, gauza guztiak hamar urtetan aldatuak izango balira bezala, hori beste arazo bat da. Baina ez zaitezte izutu, ondo goaz eta hobeto joango gera. Ikusiko dezue.

Orduan, beste puntu batetik ikusita, badakizue beti dagoela jendea abertzaletasunaren aurka dagoena gure artean, gipuztarrak bizkaitarrekin, arabarrak bizkaitarrekin edo gipuztarrekin, alkarren aurka, baita deportea bada ere, ahaleginak egiten ari direnak eta arituko direnak. Bere bidea da. Nik..., nola ahaztu..., Franco denborak ziren artean eta orduan Francoren erregimenarekin hasarre ez zeuden batzuk kontzierto eske hasi ziren, batzuk hasi ziren ere halako euskal unibertsitate bat sortzeko eskeak egiten. Ni ondo oroitzen naiz orduan esan eta irakurritakoekin. Hemen, Bilbon, hain zuzen ere. Konziertoa bai interesatzen zitzaien aberats haiei, betikoei, baina unibertsitatea ez. Eta gainera esaten zuten kontuz Gipuzku, Bizkaia eta Araba bitartean halako horma zabal eta haundiak jartzeakin. Beti izan da horientzat gure Euzkadi Nazio ideia hau benetako etsaia. Eta da oraindikan. Ez zaitezte harritu orduan gauza horiek ikusten dituzuenean, baina kontuz, kontuz, gu Alderdi honetakoak, lehenengo-lehenengo euskotarrak gara, gero gipuzkoarrak edo bizkaitarrak edo arabarrak edo naparrak. Lehenengo Euskotarrak, eta hori eguneroko bizitzan azaldu behar degu.

Gauza bat da honelako edo bestelako diputazioak bere lurraldearen alde egitea. Hori da bere beharra eta ardura hain zuzen ere. Gauzak lortzea eta abar, eta abar... eta kritikak egotea. Baina horretan gure artean ez da zalantzarik egon behar. Lehenengo euskotarrak gera naziez edo, nahi bagezue, bakoitza da edo gipuztarra edo azpeitiarra edo arabarra ... nahi dezuena. Baina gure artean ez dadila honelako piperrik sartu. Hori izango da gure etsaien lana orain eta gero. Hori garbi euki behar degu.

Beste puntu bat dago nik hemen esan nahiko nukeena. Nik ez det uste gaur hemen Sabino egongo balitz gauza guztietan orduan bezala pentsatuko lukeenik. Dudarik ez.

Ehun urte ez da txantzetako gauza herri baten historian. Ehun urtetan, batez ere azkeneko ehun urteotan, Europan egon diren iskanbilekin, aldaketekin, ... gauza guztietaz Sabinok gaur ez luke berdin pentsatuko. Nik ez dut uste gaur Sabinok ... Sabino benetan demokrata zan eta ez det uste politikoki beste biderik segituko lukeenik geuk segitzen ari dugunetikan. Ez det uste.

Seguro asko gauza bati buruz egingo luke kritika gogorra, euskarari buruz. Nik uste det Alderdi bezala instituzioak sortu direla. Instituzioak, bai eskola bidez, bai telebista bidez, radio bidez,... guk orain urte batzu pentsatu ere egingo ez genituen medioen bidez, egiten ari diren lanak diru asko ematen dute kontu horretan. Baina guk geuk eta beste askok, geure buruak euskaldun eta abertzaletzat daukagunok, ez gera euskararen alde behar genukeen fintasunakin lan egiten ari. Nik uste det hori izango litzatekela Sabinok gaur egingo ligukeen kritika latzena. Bera ez zan euskalduna jaiotzaz, euskara ikasi zuen. Filologi mailan sartu zan. Hamaika erru euki zituen baina haren kemena euskararen alde ez det uste beste inork euki dauenik. Nik garbi daukat.

Ximunek, Ximun Haranek, esan du lehen hemen: "Sans la langue basque il n'y a pas de Euzkadi". Euskara gabe ez dago Euzkadirik, beste zerbait izango da. Eta orduan gu abertzaleak bagara eta geure nahiaz Alderdi honetan konpromisoa hartuta dagaude, egia esateko, puntu honetan ez gaude behar genukeen alturan. Orduan, Alderdi bezala, eta bakoitza bere bakoiztasunean zerbait egiteko balu, hor dauka abertzaletasuna non erakutsi eta azaldu. Noraino egiten duen lan euskararen alde, ikasten zein erabiltzen. Erabiltzen dakigunok, ez bait degu erabiltzen dakigunok.

Hori, uste det, momentu honetan hamaika bider esan de-

UAB Biblioteca de Comunicació i Hemeroteca General

gula, eta errezenera jotzen degu beste askotan bezela. Errezenera jotzen degu.

Batzuk oraindikan nahiko lukete egin..., edo behintzat atzera begiratzen dute 1967-an, 68an eta 69an egiten genituen manifestapenak, mogimenduak, lanak,... Estatutoak ateratzeko edo bestea ateratzeko, eta badirudi amets egiten dutela orduko kemenarekin. Gaur ez daukagu, orain behintzat, horrelako manifestapen eta mogimenduen beharrikan. Hainbeste gauza lortu ditugu, oraindik ez dana, eta egia da jadanik instituzioak egin behar dutela guk kaleetatik egiten genduan lana. Eta kaleetan ibiltzea beti ez da normala. Baina horrek ez du esan nahi beste arlo batzuetan, Instituzioak iristen ez diren arloetan, edo Instituzioen lana laguntzeko guk, Alderdi bezala, organizatuak bezala, lan asko egiteko ez daukagunik. Orduan, hortik jo behar degu Alderdi bezala ez bakarrik programa baten bidez gure Udaletxeetan, gure Diputazioetan, ezta gure Gobernuak zer egin behar duen esanez, baizikan zer egin behar degun guk Alderdi bezala horien lanetik kanpo. Bestela, pixkanaka-pixkanaka epeltzen joango gera, jadanik epelduta ez bagaude. Indarra galduko dugu, ez badugu jadanik indar asko galdu. Eta hori batez ere gazteei esaten diet. Nik ez dakit zaharrak ejenplo haundirik ematen degun, nik aspaldi esan nien gazteei, gaurko gaztedia bere arduratan, bere geroan, bere etorkizunean pentsatzen edo etorkizunari begira jartzen denean edo dirua irabazi nahi dutela edo ogibide bat edo profesio bat hartu nahi dutela edo kalkuloak egiten dituztela edo pentsatzen dutenean ea lekurik daukaten beren herriaren adurrean edo bere herriaren zorian eta etorkizunean, nik esan nien behin: "gazteok, zuen goma-2 euskara eta teknologia dira". Euskara bada herri honen kultura, herri honen nortasuna, herri honen izatia ez bakarrik hizkuntza eta, bestalde, teknologia bada gaur behar diren aurrerapenak, gaur behar diren tresnak herri hau gora jasotzeko, bakoitzak bere lekutikan edo lantegi batetikan edo abokatu despatxo batetikan edo mediku baten lanetikan, hor daukazue helburua; eta zuek ikusi beharko dezue egunero-eguneroko lanean zer egiten dezuten zentzu honetan. Errezena da, beste batzuk egiten duten bezala eta jadanik badakite gainera hortikan ez daukatela irteerarik, kalean kristalak puskatzea, harrika ibiltzea. Hori erreza da, batez ere aurretikan pare bat kopa hartzen badituzue. Zaila bestea da.




Eta abertzaletasunaren ezaugarria hortikan dihoa. Zer egiten dezu zuk zeure eguneroko bizitzan herri hau aurrera ateratzeko? Orain oso mundu konplikatua gainera. Guk ez dugu nahi hemen Euskal Herri itxi bat euskararekin bakarrik indioen erreserba bat bezala egotea. Hori da hiltzeko, fosil bat bihurtzeko modurik onena gaurko munduan. Guk geura nortasuna irabazi behar dugu ate zabalekin, lehio zabalekin, Milanera edo Londresera edo New Yorkera joaten jakinda, kanpoko hizkuntzak jakinda. Eta, hala eta guztiz, kanpoan bizi izan beharrarekin ere jakinaren gainean egonda aitaren etxea hemen daukagula. Eta guk geure artean egon nahi degunean badakigu nora etorri behar dugun eta batez ere lehenengo geurea gordeaz. Hortik aurrera "eman eta zabalzazu munduan frutua". Hori izan da beti euskalduna. Euskaldunak ez dio behin ere beldurrik euki geroari, eta guk ere Alderdi bezala ez diogu beldurrik geroari. Ikusiko duzue hamar urte barru irabazi dugun edo ez orain aurrean daukagun herronka. Gero ere egongo dira arazoak, beti egiten dira arazoak. Gero geure artean topatuko ditugu ustelkeri batzuk, ahultasunak eta abar. Ez gara aingeruak, ez gara aingeruak eta ez dugu izan beharrik ere. Badakizue zer gertatzen dan zuek ura, edaten dugun ura, begiratzen baduzue mikroskopio batez, ikusiko duzue zenbat eta zenbat zamorro dauden barruan eta esango dezu: –nik hau edaten det? Bai, bai edaten det–; gainera zuk ur hutsa, garbia, H2O edaten baduzu, zure osasunerako kaltegarria da. Orduan urak behar ditu, behintzat gizadia den modukoa izanda, halako kutsadurak, ur hutsak ez direnak nahi baduzue. Neurri bat bakarrik hartu behar da, ea gatz eta gai hoien gain kaltegarri gauzak dauzkan edaten dugun urak. Potable ez danean, orduan hasi behar dugu benetan alerta jotzen Alderdi honetan zentzu normal batekin; eta hori ere danon lana da. Alderdi bat usteltzen bada, bere gizon publikoak usteltzen badira, arribismoa sartzen bada, ispilua galtzen bada, orduan Alderdi hau ez da izango behar lukeen tresna dauzkan helburuak lortzeko. Orduan ez luke ezertarako balioko. Horregaitikan jarri dezagun filtro bat, ez jendea aingeru izatea eskatzeko, baina bai potableak izateko. Eta orduan bai izango gera orain arte izan geran izugarrizko tresna Euzkadi benetan jasotzeko, geure nortasuna gordetzeko eta sendotzeko eta Euzkadi aske bat sortzeko. ■



# Europaruntz elkarrekin

**E**BB-ko Buru aukeratu-berri naizenez, norbere gogoz etorritako jendez osatutako, **EAJ** izena duen giza-taldeko buruaren aurpegi baino ez naiz, eta ez dut beste ezer izateko asmorik.

Neri ez dagokit egitaraua egitea; eta are gutxiago jaurtzea.

Baina nere egitekoa politika-mailakoa denez, behartuta nago, ez Alderdi honek honenbeste urtetan zehar bildu duen jakintza eta pentsakeraz oso jantzia egotera soilik, baita beren ezagupiderik eza, arbuioa nahiz okerreko abegitasuna dela eta, **EAJ** sortzeko izan ziren eta honi bizirik eusten dioten helburuak lortzea oso zail edo ezinezko egingo lioketen okerreko adierazkerek ondorioz ekarriko lituzketen gertaera guztiei ezin kontu haundiagoko arreta egitera ere.

II. Errepublika iristean, askatasun-kanpaiak dindanean jarri zirenean, EBB-k argi eta garbi adierazi zuen, Alderdi honen ezinbesteko helmuga politika-mailan, "Euzkadiren Erabateko Burujabetza" izaten jarraitzen zuela. Baina jarraian zehazten zuen: "Erabateko Burujabetzari eutsi-nahi

# Juntos hacia Europa

**E**n mi condición de Presidente, recién nombrado, del EBB, no soy, ni pretendo ser otra cosa, sino el rostro de la cabeza de este cuerpo social de composición voluntaria que se llama **PNV**.

No me compete elaborar un programa ni menos gobernar.

Pero el carácter político de mi función me exige no sólo hallarme imbuido de la ideología y del acervo acumulado durante tantos años por este Partido, sino el prestar una extremada atención a todos aquellos acontecimientos cuyo desconocimiento, desprecio o falsa apreciación acarrearían consigo planteamientos equivocados que dificultarían o harían imposible la consecución de los fines para los que nació y vive el **PNV**.

Cuando, al advenimiento de la II República, se lanzaron al vuelo las campanadas de la libertad, el **EBB** manifestaba con claridad que la meta imprescriptible de este Partido seguía siendo en lo político "la Soberanía Plena de Euzkadi". Pero puntualizaba a continuación: "Esa protesta de mantenimiento

UAB Biblioteca de Comunicació i Hemeroteca General CEDOC



honek ez du oztopo izan behar –eta izan ere, ez da–, berehalako jokabideak, burugabekeriazkoa izan ez dadin, une bakoitzeko ahalbideei egokituzkoa izan behar duenaz jabetu gaitezen ".

Une honetako ahalbideak kalkulatzea, beraz, helburuak berak lortzea bezain garrantzizkoa da. Eta, gure gogoa dena dela, murgilduta aurkitzen gareneko inguruaren gauzak direnean hartuzko azterketa egin gabe, kalkulo egokia egitea ezinezko da.

## – Aldakuntza haundiak

Gure bizitzan ere eragina izan duen aldaketako lehen-eragilea, Soviet Batasuneko, zein herriaren Demokrazia zutenetako Benetako Sozialismoaren errausketa burrunbatsua izan da.

Perestroika-k ireki zuen askatasun-zirrikituak mila zatitan apurtuta utzi ditu gure Lurrasoa zatitzen zuten pentsakera eta egitura-aldetikako mugak, eta itxaropenez betetako etorkizunaren aurrean jarri gaitu.

Mundu mailako 2. Guduak faszismoaren agintekeriarenak egin zituen, bai, baina gudu hotzaren amaiera ikusgarriak berekin batera marsismo-leninismo edo stalinismoak behea jo-

del Derecho Pleno no puede ser obstáculo –y no lo es– a que nos hagamos cargo de que toda actuación inmediata debe acomodarse, para que no carezca de sensatez, a las posibilidades del momento".

El cálculo de las posibilidades del momento, es pues, tan importante como la consecución de los propios fines. Y no cabe un cálculo correcto sin un análisis realista de la coyuntura en la que, independientemente de nuestra voluntad, nos hallamos inmersos.

## – Los grandes cambios

El primer factor de cambio que ha incidido también en nuestra vida es el estrepitoso derrumbe del Socialismo Real tanto en la Unión Soviética como en las Democracias populares.

La grieta de libertad abierta por la Perestroika ha hecho saltar en mil pedazos los muros doctrinales y estructurales que dividían a nuestro Continente, colocándonos ante una nueva y esperanzadora perspectiva.

Si la 2.ª Guerra Mundial terminó con el totalitarismo fascista, el fin espectacular de la guerra fría ha traído consigo el desmoronamiento del marxismo-leninismo o stalinismo, el



UAB
Biblioteca de Comunicació i Hemeroteca General
CEDOC




tzea ekarri du, hori bait zen mundu osoan nagusi izateko nahia zuen beste agintekeria moderno haundia.

Askatasun-leherketa honetan, behartutako estadu-egituren menpeko Nazioak abiapuntu izanik, Estadu berriak azaldu dira. Eta bilakaera hau oraindik ez da amaitu.

Baina aldaketa guztiek izaten dituzte arriskuak. Eta zenbat eta haundiagoak eta bapateangoak, orduan eta haundiagoak izaten dira arriskuak.

Horregatik, lehenengo harriduraren ondoren sasoaldia izan zen, eta sasoaldiaren ondoren, kezka eta bildurra. Inork ez daki, ez eta igartzen ere ez du asmatzen, bilakaera honek nola egingo duen aurrera. Inolako demokrazi-azturarik gabeko, bai ekoizpen-bidezko zein egaripeneko ondasunen jabea Estadua zeneko jaurpidepeko, ekonomi mailan esaten zitzaiena itsu-itsuan egiten ohituta zeuden, beren diruak benetako baliorik txikienik ere ez zueneko, enpresaritza-kulturaren aztarrenik gabeko, egitamuan agintzen ziren mugak lortzera iristekotik gorakoak gabeko ekoizkortasun-irizpideak baino ez zituzten Nazio osoak. Hori zela eta izan den anabasaren haundiak, Gorbachov irentsi duen bezalaxe irentsiko ditu Gorbachov kargurik gabe utzi dutenak. Han inork ez dauka, eta gudumizonek are eta gutxiago, etorkizunerako erabide garbirik.

Ekialdeko Estadu berriek ezeren beharrik badute, hori mendebaldekoen laguntza da. Dirubide, ekonomi eta industri-aldetatikako arazoei aurre egin ahal izateko teknika-mailako laguntza. Eta ekonomi laguntza. Baina Mendebaldeko Jaurlaritzek, bakoitza bere Estaduan ekonomiaren benetako atzerakadan murgilduta daudela, beren buruak ez dituzte uneko larritasunak eskatzen duen mailari eusteko oso gertu ikusten. Jaurlaritzei jorraketa erreza egitea ez litzateke bidezkoa izango eta, hori, Jaurlaritzek asmatzearen nahiz horien esku-zabaltasunaren gainetik, benetako gauza bat dagoelako: ordurarte lanean aritu den Jaurlaritza herritarrek lau urtez behin lehengo tokian sendotzen edo hortik egotzi egiten bait dute. Eta herritarrak gero eta gehiago eskatzen du, eta gozatzen ari den edozein egoeratan atzerapenik izateari zigorra emanez erantzuten dio. Guztiek ikusi nahi dituzte konponduta Ekialdeko edo Hirugarren Munduko arazoak. Baina norbere ongunde-maila ez gutxitzeko baldintzatan. Nor bakoitza oraindik ez da behar hainbat jabetu, besteen arazo larriei konponbide, gure aldetik zerbait ipiniz eman behar zaienaz. Izan ere, konpondu beharrean areagotzen badira, gure arazo izatera iritsiko bait dira.

otro gran totalitarismo moderno con pretensiones de hegemonía mundial.

En esa explosión de libertad han surgido nuevos Estados a partir de Naciones sometidas a estructuras estatales forzadas. Y este proceso aun no ha terminado.

Pero los cambios acarrean siempre riesgos. Y cuanto mayores y más repentinos, tanto más grandes son los riesgos.

De ahí que a la estupefacción siguió la euforia, y a la euforia la preocupación y el temor. Nadie sabe ni acierta a vaticinar cómo discurrirá este proceso. Naciones enteras sin ninguna experiencia democrática, en un régimen de propiedad estatal, tanto de los bienes productivos como de consumo, acostumbrados a un dirigismo total de la economía, sin un valor real de la moneda, sin cultura empresarial, sin más criterios de productividad que el de alcanzar las cotas impuestas por el plan. De ahí que el caos haya sido de tal magnitud que no sólo ha devorado a Gorbachov sino que devoraró a quienes han arrumbado a Gorbachov. Nadie tiene allí, y menos los militares, fórmulas claras de futuro.

Si algo necesitan los nuevos Estados del Este es ayuda occidental. Ayuda técnica para abordar la problemática financiera y económico-industrial. Y ayuda económica. Pero los Gobiernos occidentales, sumidos sus respectivos Estados en una seria recesión económica, no se hallan muy dispuestos a estar a la altura que exige la gravedad del momento. No sería justa una crítica fácil a los gobiernos, porque por encima del acierto o de la generosidad de los Gobiernos, se halla el hecho real de que cada cuatro años los ciudadanos confirman o derriban a todo Gobierno en activo. Y el ciudadano exige más y más y castiga cualquier retroceso del status del que disfruta. Todos desean que se resuelvan los problemas del Este, o los del Tercer Mundo. Pero a condición de que no disminuya su grado de bienestar. No hay conciencia individual suficiente para apreciar que los graves problemas de otros han de resolverse con algún sacrificio por nuestra parte. Porque si no se resuelven y empeoran, llegarán a ser problemas nuestros.

UAB
Biblioteca de Comunicació i Hemeroteca General
CEDOC



Mende ugaritako lozorroaren ondoren, arabiar herriak berpizteko bidetik eta islam hertsi-zaleak aurrerantza doazela ere, ikusten ari gara. Atzo Iran-en edo Libia-n gertatu zena eta gaur Arjelia-n gertatzen ari dena eta bihar agian Marroko-n edo Arabian gertatuko dena da, agian, datozen hamar urtekoetan aurre egin beharko digunekoko itxura duen arazorik larriena.

Europako herrialdeetan lan-eske dabiltzala ikusten ditugunean erdeinuz "moroak" izena ematen diegun horiek, iraganeko kultura ikaratzekoa duteneko jendeak dira. Beren kondairaz eta beren Erlijioaz benetan harro dauden jendeak. Beren iragana gogoan duten, Saladino-ren eta Jerusalen Kruzadoei XII. mendean eskutatik kendu izanaren aipamen, horiek oraingo kontuak bait liran egiten duten eta, orduan bezala, Mendebaldea, beren betidaniko arerioa, 'rumi'an edo 'frany'-an ikusten duten, eta "Mendebaldearen aurkako ezein arerio-ekintzatan, hori politika edo gudularitza-mailakoa nahiz harrolioarekin zerikusirik duena izan, bidezko mendekua" ikusten duten jendeak.

Mendebaldeak, horiek beren artean dituzten irizkidetasunik ezak direla medio, orain artekoan bezala, arrakasta izanez jokatu ahal izango du; eragotzi ahal izango du, baina ez luzaroan, horiek nukleo-indarrezko teknologiaren jabe egitea. Baina herri horiei eustea, ezinezkoa ez bada ere, oso zaila, bai, izango da. Eta arazoaren larria, Mendebalderako, ez dago honek aurka egiteko duen ahalñbidean, Europaren aurrerapenari jaten ematen dion harrolio-zati haundiaren iturriko giltza arabiar herriak bere esku izatean baizik. Horrela, bada, datozen hamar urtekoetan, ziur asko, berriro ere, azken muturreko egoeran biziko gara.

Estamos presenciando también el resurgir del mundo árabe y el avance del fundamentalismo islámico, tras un letargo de siglos. Lo que ayer sucedió en Irán o en Libia y hoy está aconteciendo en Argelia y mañana probablemente en Marruecos o en Arabia constituye probablemente el problema potencialmente más agudo al que nos enfrentaremos en los próximos decenios.

Esos a quienes despectivamente llamamos "moros" cuando los vemos mendigando trabajo por los países europeos, son gentes de un pasado cultural impresionante. Gentes con auténtico orgullo de su historia y de su Religión. Gentes que tienen presente su pasado, que citan a Saladino y la toma de Jerusalen a los Cruzados en el siglo XII como si fueran hechos contemporáneos y que, al igual que entonces, ve en el rumí o en el frany a Occidente, a su enemigo natural, y ven en "cualquier acto hostil contra Occidente, sea político, militar o relacionado con el petróleo una legítima revancha".

Occidente podrá jugar con éxito, como hasta ahora con sus disensiones internas; podrá impedir, no por mucho tiempo, el que se hagan con tecnología nuclear. Pero será un mundo difícil, si no imposible de contener. Y la gravedad del problema, para Occidente, no está en la potencial confrontación, sino en el hecho de que la nación árabe tiene en su poder el grifo de una gran parte del petróleo que alimenta la prosperidad de Europa, por lo que en los próximos decenios viviremos muy probablemente, de nuevo, situaciones límite.

## – Abertzaletasunen agerketa

Soviet Batasunean abertzaletasunak berriro agertu izanak erabat harriturik zeukala, Mijail Gorbachov-ek mendebaldeko politikariei aitortu ziela pentsatzen dudan bakoitzean, lehenengo eta behin, gizon horren sinistu ezinekoa izatera iristen den gauzen berririk eza, eta bigarrenik, ofizialki sinistu beharrekoa behin eta berriz aipatzeak ustearen eta izan ba denaren artean nahasketa sortzeko duen gaitasunaren haundia mirestea ezinbesteko gertatzen zait.

## – La explosión de los nacionalismos

Cada vez que pienso en que Mijail Gorbachov confesaba a políticos occidentales su absoluta sorpresa por la reaparición de los nacionalismos en la Unión Soviética, no puedo menos de admirarme, primero, de su increíble falta de información y, segundo, de hasta qué punto la repetición del dogma oficial hacía confundir la teoría con la realidad.

UAB
Biblioteca de Comunicació
i Hemeroteca General
CEDOC

Baltiko Herrialdeentzat ezinezko zirudiena, Errusiaren beraren jatorriarekin estu-estu elkarturiko Errepublikentzat, hona nola, Ukraniarentzat eta Bielorrusiarentzat ere, egia bihurtu da.

Konstituzioa egiteko garaian, bai zentristek eta bai sozialistek, gogor eusten zioten Burujabetzarako Eskubidea maizter gisa eukitako herriekin baino erabili behar ez zelakoa Elkarteko Jaurlaritzek, alemaniarrek duten Burujabetzarako Eskubidearen indarrez, hain zuzen, Alemaniak berriro bat egitea ontzat eman zuten une berean mila puska eginda geratu zen bezalaxe, bestelako arrazoi-bideei ere iritsi zaie beren ordua.

Gauza jakina da Errusiko lehenengo erreinua Kiev-en, Ukraniako hiriburuan, hain zuzen, X. mende aldera sortu zela. Kondaira elkarrekin eginezko mende ugari, hizkuntza bereko jendeak eta gehienak erlijio berekoak izatea ez da eragozpen izan Ukraniak bere burujabetza eskatzeko eta bere askatasuna lortzeko.

Eta hau esan, ez dasat nere jakintza-maila erakustearren, 1992. urte honetan batipat, batasun haundien apurtu ezineko oinarritzat kondairatikako komenigarritasuna aitzakitzat jartzen dutenei aurre eginez erantzuteko baizik. Izan ere, herriak, lagunak bezalaxe, batzutan elkartu eta elkarrekin bizitzen bait dira, baina baita elkarrengandik aldendu ere egiten dira eta.

Ez dago, bada, herri bakoitzak bere etorkizuna askatasun osoz erabakitzen saiatzeaz gaindiko behin betiko arrazoi biderik.

Abertzale garenez, beren gogoaren aurka, berena ez den estaduko egituraren menpe egondako hainbat eta hainbat herrik beren askatasuna lortu dutela ikustean, ez daukagu gure atsegina izkutuan gordetzerik.

"Bakoitzak ahal duena egin beza" honetan abertzaletasun-sentimendua soilik izan ez dela egia da, neurri haundian, agintekeriaren eta miseriaren hatzaparretatik ihes egiteak ere zerikusia izan du eta. Abertzaletasuna, gauza zaharkitua izatez gainera, herritarren aurrerapenaren aurkakoa dela Espaini-zale diren politika-indarrek aldarrikatzen dutenaren alderantziz, ikusten dugunez, beste tokietako gehienek erdeinu egiten diete estadu-mailako egitura haundiei eta sozialista-jaurpideei eta, hori, aurrerapen eta ondo izateko itxaropenaren bila dabiltzalako, hain zuzen.



Lo que parecía imposible para los Países Bálticos ha resultado una realidad hasta para las Repúblicas íntimamente unidas al origen de la propia Rusia, como son Ucrania y Bielorrusia.

Si la exclusiva aplicación a los pueblos colonizados del Derecho de Autodeterminación, tal como sostenían en el período constituyente tanto centristas como socialistas, cayó, hecho trizas, desde el momento en que los Gobiernos Comunitarios aceptaron la reunificación alemana en virtud, precisamente, del Derecho de Autodeterminación del Pueblo Alemán, también a otro tipo de argumentos les ha llegado su hora.

Es sabido que el primer reino ruso nació precisamente en Kiev, capital de Ucrania, allá por el s. X. Siglos de historia común, gentes de la misma lengua y, mayoritariamente, de la misma religión no han sido óbice para que Ucrania reclame su soberanía y consiga su independencia.

No lo digo por erudición, sino saliendo al paso de quienes, sobre todo en este 1992, alegan la convivencia histórica como basamento indestructible de las grandes unidades. Y es que los pueblos, como las personas, a veces se juntan y viven unidos, pero también se separan.

No hay, pues, argumentos definitivos más allá de la voluntad del propio pueblo empeñado en decidir libremente su propio destino.

Como nacionalistas, no podemos ocultar nuestra satisfacción al presenciar cómo tantas y tantas naciones sometidas, en contra de su voluntad, a una estructura estatal ajena a sí mismos, hayan conquistado su libertad.

Es cierto que en éste "sálvese quien pueda" ha intervenido no sólo un sentimiento nacional, sino, en buena medida, la huída de la tiranía y de la miseria. En contra de lo que aquí proclaman fuerzas políticas españolistas de que el nacionalismo, aparte de ser una antigualla, va contra la prosperidad de los ciudadanos, vemos que en otras latitudes se produce el rechazo masivo de las grandes estructuras estatales y de los regímenes socialistas en busca, precisamente de una esperanza de progreso y de prosperidad.

UAB
Biblioteca de Comunicació
i Hemeroteca General
CEDOC

# I Asamblea General




Abertzaletasunak bazter-nahasgarriak, bakea hautsi dezaketenak eta arriskutsuak direlako arrazoiak ere ematen dizkigute; arrazen arteko guduak, leinuen arteko mendekuak aipatzen dizkigute. Guztia erabili dauçiteke bakolitzaren komenientzira, baita kondaira ere, nahiz eta hau oraindik oraingoa izan. Orain Kroazian gertatzen dena, gudu-ondoren Tito-k ezarri zuen Yugoslabia-ko batasunerako isuritako odol, jasandako atzerriratze eta zapalkuntzarekin alderatu daitekeena ote? Edo Ordshonikidse-k Georgian eta Trosky-k Ukranian, leninismoa indar betean zegoen garaian egin zuten zapalkuntzaren ondorioz odoletan eta oinazetan kosta zenarekin? Kondairan zehar nortzuk dira benetako pake-haustaileak, haundiak ala txikiak, zapaltzaileak ala zapalduak?

Beste alde batetik, Europako Jaurlaritza jakin batzuren eta bereziki Espainiakoaren jokabidea eta aurkako ekintzak ikustean, bati ezinbesteko zaio irripar egitea, edo zorigaitzaren erdian komeri-zantzuak somatzea.

Adibidez, Italiko Kanpo-Arazotako Ministroak gaitzetsi egin zuen Yugoslabian indarraz balikatzea (krisi-aldiaren hasieratan zen), baina borobilki aldarrikatzen zuen: "Helsinkiko Idazkia oso argia da: mugak ukiezinekoak dira".

Euskal Herriak edo Katalunya-k duten burujabetza-nahiari buruzko galdera egin ziotenean, erantzun bera eman zuen: "Helsinki-ko idazkia oso argia da –berriro dio–, mugak ukiezinekoak, laterrien osotasuna, eta sendotutako demokrazia duten EE-ko laterrietan ez dut ikusten zenbait taldek, arrazaaldetikako nahiz kondairatikako garrantzirik izan ba duten arren, garrantzi hori dutelako burujabetza-eskubidearen jabe bilakatzeko arrazoirik. Jokabide arriskutsuan izango litzateke. Hori ez da eragozpen autonomi-maila haundiagoak, nortasun haundiagoa, tokian tokirakotutako aginpide haundiagoak emanez, baina nazio-mailako Estaduaren egiturarik aldatu gabe aurrera egiteko".

Geroxeago eta Kroazia eta Eslaboniaren aipamen egitean bestelako irizpidea zuen: "Oraingoz, alemaniarrok eta italiarrok Bake-Bilkura arrakastatsua izatearen aldeko apustua egiten dugu. Baina auzia Gudaroste Federalak Serbiaren alde bete-betean eskuhartuz, gudu bizi bilakatuko balitz, Kroaziako eta Eslobeniako mugen aitorpen egingo genuke eta Mazedoniako mugen, baita Bosniakoen ere, aitorpen egitea aztergai jarriko genuke".

Nos vienen también con el argumento de que los nacionalismos son perturbadores, desestabilizadores y peligrosos; sacan a colación las guerras inter-étnicas, las venganzas tribales. Todo es manipulable y también la historia, aunque sea reciente. ¿Cabe comparar lo que sucede hoy en Croacia con la sangre, el exilio y la represión que costo la unidad Yugoslaba restaurada por Tito en la post-guerra? ¿O lo que costo en sangre y dolor la represión llevada a cabo por Ordshonikidse en Georgia o por Trosky en Ucrania en pleno leninismo? ¿Quienes son los auténticos desestabilizadores a lo largo de la historia, los grandes o los pequeños, los opresores o los oprimidos?.

En otro orden de cosas no puede uno menos de esbozar una cierta sonrisa, o ver ciertos atisbos de comedia en medio de la tragedia al observar el comportamiento y las reacciones de ciertos Gobiernos europeos, y especialmente del español.

Por ejemplo, el Ministro italiano de Exteriores condenaba el uso de la fuerza (era en los comienzos de la crisis) en Yugoslavia, pero proclamaba tajantemente: "La carta de Helsinki es muy clara: inviolabilidad de las fronteras".

Lo mismo responde cuando le preguntan sobre la pretensión del País Vasco o de Cataluña a la autodeterminación: "La carta de Helsinki es muy clara –repite–, inviolabilidad de las fronteras, integridad de los países, y yo no veo razones para que en los países de la CE, que son democracias consolidadas, ciertos grupos, aunque tengan importancia étnica o histórica, se arroguen un derecho a la autodeterminación en cuanto tales. Sería un procedimiento peligroso. Ello no impide que se vaya hacia adelante en conceder mayor autonomía, mayor identidad, mayores poderes descentralizados, pero sin modificar la estructura del Estado nacional".

Un poco más tarde y refiriéndose a Croacia y Eslovenia cambiaba de criterio: "Por el momento, alemanes e italianos apostamos por el éxito de la Conferencia de la Paz. Pero si el conflicto degenerase en una guerra abierta con participación plena del Ejército Federal en favor de Serbia, reconoceríamos las fronteras croatas y eslovenas y se plantearía el reconocimiento de Macedonia e incluso el de Bosnia".

UAB Comunicació i Hemeroteca General CEDOC

Guzti hau parregarria da. Eta horretxegatik ez naiz Espainiako Jaurlaritzaren, horko Lehendakariaren, Kanpo-Arazotako Ministroaren esanen nahiz ekintzen aipamen egiten hasiko. Eta zer esan Senatuko Lehendakariaren kakotx arteko "bitxikeriei" buruz! Kroaziaren eta Eslobeniaren aitorpen egitean, sei Errepublika Soviet ohiekin diplomazi-harremanei ekiten zaienean, eta Yugoslabiara bidaltzeko Espainiako Gudarosteko talde bat prestatzen ari diren honetan, gutxi barru bi urte beteko direneko "Nazioaren egoerari buruzko Eztabaidaldi"tik hona Espainiako Jaurlaritzak izandako politikarekiko eta horrek Anasagastirekin izandako elkarrizketarekiko iruzkin egitea gogor samarra izango litzateke eta, gaur eta hemen, ez dut inor zauritzeko asmorik.

Lituaniakoen bideari buruz aurre helduko ote genion benetako bildurra izan zuten goiko mailetan. Baina, bai orduan eta bai gaur, garbi daukagu, Lituania edo Kroazia nahiz Uktrania bezain herri eta Nazio garen arren, bestek hartutako erabakien eta besteren egoeren eretzean erabakiak hartzeak ez zuela itxurarik.

Espainiako Jaurlaritzak lasaitasun bera ez duela izan pentsatzen dut. Eta horrek izan duen errezeloz betetako, beranduko eta dotoretasun eskaseko politikak, euskaldun eta katalunyarrekiko ezarri behar zirela uste zuteneko altzinekin zerikusi haundi samarra izan duela.

Baina ba dago oso garbi daukagun zerbait. Eta hori autonomi ituneen eta Konstituzio-berrikuntzaren aipamen egiten den une hauetan esan beharra dago. Estaduko Jaurlaritzaren ustea autonomi politika murruzgarriaren aurrean, eten gabe indarrean jartzen ari diren oinarri-Legeen edo gure Autonomia murrizten, baita parregarri uzten ere, duten Legeen aurrean sorgor geratuko garelakoa bada; politika-erakunde gisa eratutako Konstituzio-Epaitegiak, ulertze-modua emateko bideaz baliatuz, Estatutuaren edukiak behin eta berriz urriagotzen dituzten erabakiei amor emango diegula pentsatzen badute; portutako, energi, industri aldetikako nahiz dirubideketako 'holding'ak eurek eta eurentzat sortu ahal izango dituztela uste badute, beste hau oso garbi euki behar dute: etorkizunean istilu larriagoak izateko oinarririk seguruenak jartzen ari direla.

Ez gabiltza gurea ez den Espainiako Konstituzioa eraberritzearen atzetik. Ondo asko bai bait dakigu guk baliogabetuta utzi nahiz eskatu nahi ditugun puntu guztiekikoan inolako aldake-




Todo esto es simplemente ridículo. Y por ello no entro a reproducir dichos o hechos del Gobierno español, de su Presidente, del Ministro de Exteriores y no digamos las "genialidades", entre comillas, del Presidente del Senado. Comentar la política del Gobierno español comenzando desde el "Debate sobre el estado de la nación" de hace muy pronto dos años y su diálogo con Anasagasti, hasta hoy, cuando al reconocimiento de Croacia y Eslovenia, se entablan relaciones diplomáticas con seis Repúblicas ex-soviéticas y se está preparando un destacamento del Ejército español para enviarlo a Yugoslavia resultaría un tanto duro y, hoy y aquí, no tengo interés en herir a nadie.

En esas altas instancias se temió seriamente que aquí nos lanzaríamos por la vía Lituana. Pero teníamos y tenemos muy claro que, aún siendo tan pueblo y tan Nación como Lituania o Croacia o Ucrania, no tenía sentido el tomar decisiones en función de las decisiones y situaciones de otros.

Pienso que el Gobierno español no ha tenido la misma serenidad. Y que su política recelosa, tardía y poco elegante, ha tenido bastante que ver con los precedentes que entendían establecerse de cara a vascos y catalanes.

Pero hay algo que también tenemos muy claro. Y hay que decirlo en estos momentos en los que se habla de pactos autonómicos y de reforma de la Constitución. Si el poder central cree que vamos a permanecer impasibles ante una política autonómica restrictiva, ante la constante sanción de Leyes de base o de Leyes que van cercenando y aún ridiculizando nuestra Autonomía; si piensan que vamos a pasar una y otra vez por las decisiones de un Tribunal Constitucional que, por vía interpretativa y constituída en cámara política, recorta repetidamente los contenidos del Estatuto; si creen que van a poder crear impunemente holdings portuarios, energéticos, industriales o financieros por sí y ante sí, deben tener muy presente que están poniendo las bases más seguras de graves conflictos futuros.

No estamos interesados en la reforma de la Constitución española, que no es nuestra Constitución. Porque sabemos muy bien que no se reformará en ningún caso respecto a todos



tarik ez dela egingo. Elkarte-bidetik ari da eraberritzen Konstituzioa gainera. Maastricht-ek puntu batzutan eraberritu du. Eta eraberritzeari jarraituko zaio. Kontu izan, ahotan dugun gaiaren ildotik jarraituz, Maastricht-en honako erabaki hau hartu zela: jatorriz deneko Estadutik kanpoko beste batean bizi dadin Elkarteko edozein herritarrek udal mailako eta Europako Legebiltzarreko hauteskundeetan boto-eskubidea izan dezala.

Lehendakaria eta ni neu, Elkarteko edozein biztanlek boto-eskubidea, udal eta Europa-mailako hauteskundetarako soilik ez, baita Batzar Nagusietako eta Eusko Legebiltzarrekoetarako ere izan lezaneko iritzikoak gara. Gure europako herritartasuna areagotzeko era bat izango litzateke.

Konstituzioa prestatze-aldiko Gorteetan, EAJ legebiltzartaldeko buru nintzenez esan nuen: "Ba daiteke euskal abertzaletsuna esku-zabalik datorreneko azkeneko aukera hau izatea". Hala eta guzti ere, hitzarmena ezinezkoa izan zen. Ozta-oztako elkar bizitza egiten jarraitu dugu. Baina inori ez dago beti ozta-oztako elkar bizitza egiteko zigorra ezartzerik.

## – Pakea

Gure Nazioan ba da gehien-gehienek duten nahirik, eske

aquellos puntos que nosotros queremos derogar o recabar. Además se está reformando la Constitución por la vía comunitaria. Maastricht la ha reformado en varios puntos. Y se seguirá reformando. Por cierto, y en este orden de cosas, en Maastricht se adoptó el compromiso de que cualquier ciudadano comunitario residente en un Estado diferente al de su ciudadanía tenga derecho de voto en las elecciones municipales y en las del Parlamento europeo.

El Lendakari y yo mismo somos de la opinión de que en Euzkadi cualquier residente comunitario pudiera tener derecho al voto no sólo en las elecciones municipales y europeas sino también en las de Juntas Generales y en las del Parlamento Vasco.Sseria una forma de recalcar nuestra propia ciudadanía europea.

En las Cortes Constituyentes, como portavoz del grupo parlamentario del PNV dije: "ésta es, tal vez, la última ocasión en la que el nacionalismo vasco se presenta con la mano tendida". Sin embargo no fue posible el acuerdo. Hemos seguido conviviendo penosamente. Pero a nadie puede condenársele a convivir siempre penosamente.

## – La Paz

Si existe hoy un deseo, una exigencia abrumadoramente



hertsirik baldin bada, hori, zalantzarik gabe, pakearen nahia, pake-eskea da. Baieztapen honek ez du inolako herri-itaunketaren nahiz iritzi-eskeren beharrik. Horrelaxe da, eta kakomakoek ez dute balio. Gauza oso errexa da, eta hori armak, leherkaiak, indarkeriak uztean datza eta, hori, etika-aldetikako balio-neurketak alde batera utzirik, politika-mailako helburuak lortzeko herriak eta gure inguruan ditugun guztiek erdeinatzen duten era izatez gainera, baita nahi diren helburuak lortzeko ere, arbuiagarria eta kalterakoa, hain zuzen, delako.

KAS izeneko egitura osoa, honen arma eta guztiko Aintzindari, bere Alderdi iraultzaile, bere Sindikatu, bere gazte-antolakuntza eta direnak diren bere Batzorde Bazternahasle eta guzti, bere eraskin den Herri Batasunarekin batera, atzeratutako herrien mailakoa da eta aginteaz jabetzeko eta ekintza iraultzaileko marsista-leninista gidaren ereduari jarraitzen dio.

Bera indarrean jartzea KAS-en jatorrizko helmuga izan zeneko "benetako sozialismoa"k behea jo duenez, garaiz kanpo egotez gainera, tokiz kanpo ere ba dago. Garaiz kanpo ezezik, baita tokiz kanpo ere. Zergatik? Euzkadi atzeratutako herrien osakide ez delako, eta bertako langilegoak iraultza-ametsik ez duelako. Europan, Ekialdea barne, erasozko eta arma-bidezko edozein konponbidek bertan beherako arbuioa sortzen bait du. Serbia egiten ari den guduaren aurrean jende guztiak eman duen erantzuna ikustea aski.




Euskal industriko larrialdiaren errudunak KAS edo honen Aintzindaria direlakoa ez da egia. Ba dira hori sortu eta larriagotu duten beste eragileak, baita garrantzitsuagoak ere.

Baina beste hau, bai, egia dela, KAS-en iraultzagintzak "ezabatu gero eraikitzeko" eredupean jokatu duela eta iraultzagintzako bazterrak nahastuzko politika oinarri izanez, euskal gazteen eredutarako baloreak, etika eta erlijio-aldetikakoak barne, suntsitzeko ahaleginetan propio aritu dela alegia; ekonomi larrialdia areagotzen saiatu da eta, hori, jendearengan etsipena eta amorrua sortzeak berekin "iraultzarako garaia" eta euskal herria "politika eta gizarte-aldetik erabat askatzeko berenezko baldintzak" ekarriko zituela uste zutelako.

KAS-ek indarkeria, gizakien arteko gorrotoa eta kaleko basakeria suztatu ditu. Erasoak, leihar-apurketak, baita gure egoitzetakoak ere (horra egun hauetan behin eta berriz, esate

mayoritaria en nuestra Nación, es, sin duda, el deseo y la exigencia de la paz. Esta afirmación no necesita ni referéndum ni encuestas. Es así, y no valen subterfugios. Se trata sencillamente dejar las armas, las bombas, las extorsiones, porque, al margen de valoraciones éticas, constituyen además una forma de conseguir fines políticos rechazada por el pueblo y, en todo el entorno que nos rodea, es simplemente impresentable y contraproducente hasta para los fines que se desean conseguir.

Toda la estructura llamada KAS, con su Vanguardia armada, su Partido revolucionario, su Sindicato, su organización juvenil y sus Comités de Agitación, que son lo que son, junto con su apéndice de Unidad Popular, es tercermundista y responde a esquemas marxista-leninistas de toma de poder y de acción revolucionaria.

No sólo está fuera del tiempo, dado el derrumbe del "socialismo real", cuya implantación fue la meta original de KAS, sino fuera también de lugar. No sólo fuera del tiempo sino del lugar. Porque Euzkadi no forma parte del tercer mundo, ni su clase trabajadora tiene aspiraciones revolucionarias. Porque en Europa, incluido el Este, cualquier solución agresiva y armada genera un rechazo inmediato. No hay más que ver la reacción unánime ante la guerra sostenida por Serbia.

No es cierto que KAS o su Vanguardia sean las causantes de la crisis industrial vasca. Hay otros factores incluso más importantes que la han originado y agravado.

Pero no es menos cierto que el revolucionarismo de KAS ha funcionado bajo los esquemas de "destruir para construir" y que desde su política de agitación revolucionaria buscó deliberadamente el derrumbe de los esquemas de valores, incluidos los éticos y religiosos de la juventud vasca, buscó la agilización de la crisis economica por entender que en la frustración y en la ira colectiva se hallaba el caldo de cultivo que traería consigo el "momento revolucionario", las "condiciones objetivas para la liberación total, política y social" del pueblo vasco.

KAS ha fomentado la subcultura de la violencia y del odio social, del vandalismo callejero. Las agresiones, las roturas de cristales, incluso en nuestras sedes, como está sucediendo estos días y repetidamente por ejemplo, en Llodio y en

herkahaiak, behar bezala erabiltzen ez jakiteagatik, hatzaparretan eztanda eginda, taldekoren bat hiltzen denean ere, jabetza herriarena deneko autobus eta tren-erreketak, bideetan trabak jartzea, mehatxuak, izen on-kenketak... garai batean 'integrismo' izenez ezagutzen zen eta gaur 'fundamentalismo' esaten zaionaten lekuko dira.

Horien euskaltasunaz berak bakarrik jabetu beharra! Horien "euskal herri langile" beren buruak egin beharra! Gainontzekuok, gehienok hain zuzen, mamu-itxurako edo izarretatik etorrikoak beste gabe bait ginen! KAS-ek ez du, EAJ-k ez duen bezalaxe, euskal herri, ez eta horren izeneko ere, bera bakarrik izateko eskubiderik. Herri hau gutako bakoitza jaio baino lehenagotik ba zen eta gu hil ondoren ere, izaten jarraituko du.

Euskaldun guztiek dute, guk gure buruak ditugun bezalaxe, beren buruak huts hutsik euskalduntzat eukitzeko eskubidea, nahiz huts hutsik espainiartzat eukitzekoa, eta askoek horrelakotzat dauzkate, nahiz huts hutsik europartzat edo euskaldun eta europartzat, edo euskaldun eta espainiar eta europartzar eukitzekoa. Eta gehiengoa izango da jokabidea ezarriko duena. Eta ez gutxiengoa gehiengoaren gainetik jarriko dena. Gurekin datorrenak garbi izan behar du. Gu, Nazioz, huts hutsik euskaldunak gara, eta kito.




Inori ez zaio bidezko, lehenengo aldiz guk aldarrikatu genuen eta horren aldarrikapena eurek asko geroago egin zuteneko eta bere batasuna eta askatasuna nahi duguneko Euskal Nazio-irizpidea abiapuntu izanik, gure pentsakera eta ekintzarako gure jokabidea inori indarrean ezartzerik. Ez Iparraldeko euskaldunei, ez eta Nafarroako euskaldunei ere, ez eta arabarrei ere, horko zenbaitek diotenez, egunen batean gurekin politika-mailako elkarbizitza egitetik aldendu nahi izango balute behintzat. Ez dugu herriak eta herritarrak izan nahi ez dutena izatera egon nahi ez duten tokian egotera indarrez behartzen dituzten hainbat estaduren lotsagarrikerian erori nahi. Eta besteak zapaltzen dituen herria ez da jarea. Eta batipat, behartutako siniskaien eta indarkeriaren bidez, nortasunak ito zituztela pentsatu zuten arren, horiek sendotu eta sakondu besterik egin ez dituzten aginterri eta estaduen baitan gertatzen ari dena ikusi ondoren.

Askatasuna burutara emanezkotik ez datorrenik ezer ez da betiko izaten. Eta ez dago herri baten askatasuna baino iraunkorrago izan behar duenik ezer.

Donosti, las quemas de autobuses y de trenes, propiedad del pueblo, las barricadas, incluso cuando algún miembro de comando muere por su propia inexperiencia al manipular explosivos, las amenazas, las descalificaciones... son exponente de lo que antes se llamaba integrismo y hoy fundamentalismo.

Esa atribución en exclusiva de lo vasco. Ese constituirse a sí mismos en "pueblo trabajador vasco". Como si los demás, la gran mayoría por cierto, fuéramos una especie de ectoplasma o simplemente unos alienígenas. Ni KAS, como tampoco el PNV, tiene derecho a monopolizar el ser ni la representación del pueblo vasco. Este existía antes de nuestras respectivas fechas de nacimiento y existirá tras nuestras fechas de defunción.

Todo vasco tiene derecho a sentirse sólo vasco, como nos sentimos nosotros, o sólo español, como se sienten otros, o sólo europeo, o vasco y europeo, o vasco y español y europeo. Y será la mayoría la que establezca una pauta de conducta. Y no la minoría quien imponga nada a la mayoría. El que venga con nosotros debe tener claro. Nosotros, de Nación sólo somos vascos, y nada más.

Nadie está legitimado para, desde un concepto de Nación Vasca que proclamamos nosotros primero y ellos mucho después, y cuya unidad y libertad buscamos, imponer a nadie nuestra ideología y nuestra estrategia de acción. Ni a los vascos de Iparralde, ni a los vascos de Navarra, ni siquiera a los alaveses si, como dicen algunos de ellos, quisieran un día apartarse de nuestra convivencia política colectiva. No queremos caer en la vergüenza de tantos estados que imponen por la fuerza a pueblos y a individuos ser lo que no quieren ser y a estar donde no quieren estar. Y ningún pueblo es libre si oprime a otros. Sobre todo a la vista de lo que está sucediendo en el seno de imperios y de estados que con dogmas y con violencia creyeron haber ahogado identidades y no han hecho sino fortalecerlas y profundizarlas.

Nada hay duradero que no provenga de la persuasión en libertad. Y nada hay que deba ser más duradero que la libertad de un pueblo.

UAB i Hemeroteca General CEDOC

Guzti horregatik, garaiz eta tokiz kanpo, KAS irteerarik gabeko kale-zuloan aurkitzen da. Hor darraite setatuta, onenean ere Bergarako besarkada tamalgarriaren pareko izango ez den balizko ituneketaren atzetik.

Hainbat eta hainbat itxuragabekeriari amaiera emango dion Gorbachov edo Yeltsin-en bat KAS eta HB-ren baitan noiz sortuko zain egotea besterik ez zaigu geratzen. Horrek, aldi berean, okerreko eta kalterako norakoa emanda dagoen indarren ugaria politikako benetako ekintza-alorrera eramaten jakin beharko du.

## – Europa: Benetako ordua

Europako mugimenduaren sorrerako lehen-uneetan atzerrian ziren EAJ-ko jendeek parte hartu izanagatik harro sentitzen gara gure alderdian eta hori bidezkoa dugu.

Haiengandik jaso genuen Europarenganako ustea, Euskal Herriaren arazoek, bere batasunetik hasi eta aurrerakoek, Europa jare eta elkartuaren esparruan konponbide hobea izango dutela sinistuta egonik.

Eta horrela, jendaurrean egin genuen lehenengo agerraldian, Iruñan, onartu ziren Alderdi osoak, Uri Buruz Uri Buru, beraz, 1976.ean hasiera emandako aldi luzearen ondoren, onartutako isilpekoez besteko politika-mailako lehenengo irizpidieak.

Agiri honetan esaten zen: "Oraindik beren 'Estado-Nación' egituratan tinkatuta jarraitzen duten Europako Estaduek ez dute, hala ere, dagoenekoz, oraindik gutxi arte gozatzerik izan zuten erabakiak bere kabuz hartzeko gaitasunik. Nazio ahaltsuak eta talde-politika azaldu izanak Mundu-mailako II Gudua artekoan bai politikan etan bai nazioarte-mailan izan zuten aintzindaritzarik gabe utzi ditu. Europako Legebiltzarreko hauteskunde orrokorrak iragarten dira (artean ez zen Europako Legebiltzarrik) eta, hori, Europako ekonomi esparru berriak politika-esparru berria nahitaezko egiten duelako. Bretaina Haundia, Frantzia nahiz Alemania, bakoitza bere estadutasunari, orain arte bezala, burujabetasun osoz eusteko gauza ez badira, euskal herriak, arrazoizkoa denez, ez du bere buruari zaharkituta eta gainditutа dagoen estadu-egitura eman nahi izanezko tentaldian erori behar. Oraindik egiteko dagoen politika-mailako egitura berri hori demokraziazko eta nazio anitzez osatutako, herri




Por todo ello, fuera del tiempo y del espacio, KAS se halla en un callejón sin salida. Empecinados en una hipotética negociación que, en el mejor de los casos, no será más que una triste reedición del abrazo de Vergara.

Sólo nos resta esperar a que en el seno de KAS y de HB surja algún Gorbachov o algún Yeltsin que ponga fin a tanto sin sentido. Y que sepa conducir al campo de una auténtica acción política el cúmulo de energías encauzadas en una dirección equivocada y contraproducente.

## – Europa: la hora de la verdad

En el **PNV** sentimos un legítimo orgullo por el hecho de que nuestros hombres en el exilio hubieran participado en el primer momento de la gestación del movimiento europeo.

De ellos heredamos la fe europeista, con la convicción de que los problemas del Pueblo Vasco, comenzando por su unidad, se resolverían mejor en el marco de esa Europa libre y unida.

Y así, en la primera Asamblea pública, en Iruña, se aprobaron los primeros planteamientos político, no clandestinos, aprobados por todo el Partido, Junta por Junta, por tanto en un largo proceso abierto en Diciembre de 1976.

En ese documento se decía: "Los Estados europeos, anclados aún en sus estructuras de Estado-Nación, no disponen ya, sin embargo, de la capacidad de decisión soberana de la que hasta hace poco disfrutaron. La aparición de las grandes potencias y la política de bloques, les ha arrebatado el protagonismo político e internacional que ejercieron hasta la II Guerra Mundial. Se anuncian elecciones generales para un Parlamento europeo, (todavía no existía un Parlamento Europeo), porque el nuevo marco económico europeo exige ineludiblemente un nuevo marco político. Si Gran Bretaña, Francia o Alemania ya no pueden sostener su autoestatalidad en la plenitud de soberanía, como hasta ahora, es lógico que el pueblo vasco no debe caer en la tentación de pretender darse a sí mismo una estructura estatal caduca y superada. Ha de luchar y colaborar para que esa nueva estructura política europea, aún por hacer, sea democrática y plurinacional, una Europa en la que cada pueblo

UAB Hemeroteca General

bakoitzak, bere izatetik eta berarizkotasunetik abiatuta, bete betean garatzerik izan dezaneko Europa izan dadin borrokan egin eta laguntza eman beharko du".

Iparraldeko euskaldunei zegokienez, agiri hori, kondaira, hizkuntza eta kultura-alorretan izan ba ditugun loturak areagotzeko izango litzatekeen zudu-sorta sendoa sortuko luketen era guztietako ekonomi aldetikako loturak gauzatzeaz mintzo zen. Eta hau ere esaten zen: "Euskaldun guztion artean gizarte-aldetikako batasuna lortzea ez da, beraz, inolako utopi eta, hori, Europan 'herro diren herrien' artean antzekoak dagoenekoz aurrera-bidean aurkitzen direla kontutan izanik".

Datorren urtarrilaren lehen-egunean muga-oztopoak erabat ezabatuko diren eta jendea, merkatalgaiak eta diruak askatasun osoz ibiltzeko askatasuna izango den garaia baino lehenagotik, aurrerabide hau dagoenekoz aurrera doa; Euzko Alderdi Jeltzalea eratuta dago, dagoenekoz, Lapurdi, Zuberoa eta Behenafarroako lurraldeetan, eta ez guk iparraldeko euskaldunen arazoetan muturrik sartu dugulako, ez, hango euskaldunek eurek eskatuta baizik.

Agiriak jarraian zioen: "EAJ-k bere europa-zaletasuna behin berriro adierazten du..., bere sorkuntzan eta garapenean Euskal Herriak partaide izatez gainera, eragina izan behar duneko Europak, EAJ-ren ustez, izan behar du:

– Zibilizazio eta Kultura-oinarri bera duten herri askea eta, osakideen berezitasunei eutsiz, politika-egitura direnez daindituta eta nazioarteko ekonomi zuduen menpe aurkitzen diren oraingo Estaduen batasuna soilik ezezik, baita elkartearen garakuntza aurrera eramateko gauza ere izango den egitura-sapaipean elkartutakoa.

– Mundu-mailako II. Guduko hondakinen banaketa egitetik sortutako talde-politikaren baldintzapen eta menpekotasunetatik askatutakoa.

"Herrien Europa honen esparruan bihurtuko da egia euskaldunon politika-batasuna eta Europako gainontzeko herrien pareko eta horiekin elkarkide izanezko askatasuna, eta hor izango du euskaldun guztiok nahi izatearen ondorioz sortutako eta bere berea izango den politika-egitura".

Zati hauek atera ditudaneko politikako agiria, direla 15 urte, nik neuk idatzi nuen eta, Iruñako lehenengo Batzarrean onartu ondoren, Alderdiaren dotriña bilakatu zen.

pueda desarrollarse plenamente a partir de su propio ser y peculiaridad".

De cara a los vascos de Iparralde, el mismo documento hablaba del establecimiento de lazos económicos de todo orden, que crearían una sólida base de intereses que reforzarían los vínculos ya existentes en el terreno histórico, lingüístico y cultural. Y agregaba: "No es, pues, ninguna utopía la consecución de una unidad sociológica entre todos los vascos, teniendo en cuenta procesos similares ya en marcha entre "pueblos bisagra" europeos".

Aún antes de la caída total de las barreras aduaneras y de la libertad de circulación de personas, mercancías y capitales el próximo primero de Enero, este proceso se halla ya en marcha; el **Partido Nacionalista Vasco** se halla ya constituido en los territorios de Laburdi, de Zuberoa y de la Baja Navarra y además por iniciativa de los propios vascos del Norte. Y no por ninguna ingerencia nuestra en los asuntos de los vascos de allí.



El documento continuaba diciendo: "**El PNV** reitera su vocación europea... Esa Europa, en cuya creación y desarrollo debe influir y participar el Pueblo Vasco, la concibe el **PNV**:

– Como una Europa de pueblos libres, con una base común de civilización y de cultura, libre en su ser político y diferencial y unido bajo un techo estructural, susceptible de cubrir un desarrollo comunitario, y no exclusivamente como una unión de los Estados actuales, superados como estructura política y dominados por intereses económicos internacionales.

– Liberada de los condicionamientos y dependencias de la política de bloques surgida del reparto de despojos de la II Guerra Mundial y de la subsiguiente guerra fría".

"En el marco de esta Europa de los pueblos es donde hallará su realización la unidad política de los vascos y su libertad, en igualdad y solidaridad con los demás pueblos europeos, y con una estructura política propia surgida de la voluntad de todos los vascos".

El documento político del que entresaco estos párrafos fue redactado por mí hace 15 años y se convirtió en doctrina del Partido por su aprobación en la Asamblea de Iruña.

UAB Biblioteca de Comunicació i Hemeroteca General CEDOC

Baina hango edukiak ez ziren nereak. Gure aurreko belaunaldiko gizonek gertatua zutena behin berriro adieraztera mugatu nintzen. Aurrekoena ondorengoei aldatzera mugatu nintzen. Isilpean jokatu beharreko lanbro-artean ere, Alderdian, 1949.az geroztik, dotriña zen.

Aipamen hauek beharbada aspergarri egingo zitzaizkizuen. Baina gaur, Europaren benetako ordua jotzear dagoeneko 1992. urte mitiko honetan aurrera goazela, horiek sendesteari garrantzizko derizkiot.

Buru argiz erabakitako eta lehenengo orduko europa-zaletasunaren, gure inguruko alderdietako beste batek berak ere ez duen garaikurraren froga da.

Gure batasuna eta gure askatasuna Europako esparruan lortuko dituguła guri entzutean irripar eginez erantzun izan digutenak asko dira. Gaur irripar baino kezka gehiago ikusten dira.

Europarekiko gaietan, baita euskal politikarekikoetan ere, asko dakien diplomatiko amerikar batek, oraindik orain, begietara begiratuz, bitan esan zidan gauza bera: "Arzalluz, abuztuaren 21ean Moskuko golpeak porrot egin zuen egunetik aurrera, ezinezkorik ezer ez dago Europan". Ba zekien zer zioen, baita nori esaten ari zitzaion ere.



## – Europaren arrakasta

Gaur euro-baikorrak eta euro-ezkorrak aipatzen dira. Europagintzako arrakastak eta porrotak.

Austria, Malta edo Turkiaz gainera, Elkartean sartzeko eskea nork eta Sueziak, hain zuzen, egin izana, inolako zalantzarik gabe, arrakasta-adierazgarri da, honen atzetik Noruega eta Finlandia, eta agian baita Suiza ere, etorriko direla pentsa daiteke eta. Txeloslobakiaz, Hungriaz, Poloniaz..., zer esanik ez, noski, Kroaziak eta Eslobeniak, benetako askatasuna lortu bezain azkar, egingo duten bezalaxe. Baina azken herri hauek, baltikoak bezalaxe, eskubide guztien jabe izanezko kide-mailan sartzeko eran prestatuta egoteko urte asko beharko dituzte.

Baita era askotako arazo-pilak alde batera utzirik ere, Elkartearen oraingo iraskunde-mailako erakuntza ez da ezer egiteko gauza izango, baldin eta oraingo hamabi kideez gainera, herri berriak bere baitan hartzen baditu, 16 edo 20 Jaurlaritzetako buruk osatutako, lehendakaritza sei hilabetez behin beste hainbeste Estaduetara aldatuzko Europako Kontseilua, daitekeenari begiratuzkoa inola ere ezin izan.

Pero sus contenidos no eran míos. No hice sino trasmitir lo que ya habían elaborado los hombres de la generación anterior a la nuestra. No hice más que transmitir el testigo. En las brumas de la clandestinidad era ya doctrina del Partido desde 1949.

Tal vez os he aburrido con estas citas. Pero considero importante ratificar hoy, entrados ya en este año mítico de 1992, a punto de que suene la hora de la verdad de Europa.

Constituye la demostración de un europeísmo lúcido y de primera hora, de un palmarés europeo que ningún otro Partido de nuestro entorno puede exhibir.

Son muchos los que se han sonreído ante nuestros planteamientos de alcanzar nuestra unidad y nuestra libertad en el marco europeo. Hoy se ven más preocupaciones que sonrisas.

Muy recientemente un diplomático americano, experto en temas europeos, y también en la política vasca, me repitió dos veces mirándome fijamente a los ojos: "Arzalluz, desde el 21 de Agosto –fecha del fracaso del golpe de Moscu– todo es posible en Europa". Sabía muy bien lo que decía y a quién se lo decía.

## – El éxito de Europa

Hoy se habla de euro-optimistas y de europesiministas. De éxitos y de fracasos en la construcción europea.

Hay, desde luego, un factor indudable de éxito en el hecho de que, aparte de Austria, Malta o Turquía, ha solicitado su ingreso en la Comunidad nada menos que Suecia, a la que seguirían previsiblemente Noruega y Finlandia y tal vez la propia Suiza. Aparte, naturalmente, de Checoslovaquia, Hungría, Polonia, del mismo modo que lo harán Croacia y Eslovenia en cuanto consigan su independencia efectiva. Aunque estos últimos países, al igual que los bálticos, no se hallarán preparados en muchos años para poder ingresar como miembros de pleno derecho.

Pero aparte de todo un cúmulo de problemas de diverso orden, la actual organización institucional comunitaria no es susceptible de un mínimo funcionamiento si, además de los doce miembros actuales, acoge a otros nuevos países. Un Consejo europeo de 16 ó de 20 Jefes de Gobierno, con una rotación semestral de su Presidencia por otros tantos



Horregatik, bada, alde batetik, luzera, horretarako gertu daudenei eratxikipena ukatzerik izango ez badu eta, hori, horiek gainontzekoak bezain europarrak direlako, horiek onartzeak eraskunde-mailan zailtasunez betetako aldaketa ekarriko du.

Bestetik, Elkartearen "demokrazi-aldetikako mentsa" izenez ezagutzen denaren aurkako jazarpena deiadar izatera iritsita dago. Demokraziaz orain ulertzen denekoan ahalmen-banaketa eta Jaurlaritzaren zaingoa Legebiltzarrak eta bi hauena Epai-Agintaritzak, baina bietan goitik behera gabekoa, izatea funtsezkoa bada, hona zer gertatzen zaigun, herritar askorengan ezezik, baita gure Jaurlaritzen ekintzan ere, eragina izanezko benetako aginpideak dituen Batzordea, hots, Europako burokrazitzar hori, ez duela zaintzen ia inolako aginpiderik ez duen Europako Legebiltzarrak. Egoera honek ez dauka dagoenean jarraitzerik eta, oso luzera baino lehen, alderen batetik kehertuko da.

Urteak dira Kohl Kanziller-ari entzuten niola barru-barrutik ateratzen zitzaion hura, lotsa-zipitzik izanez gero, Legebiltzar ez den horretarako europa-mailako hauteskundetara herritarrei dei egitea ezinezkoa dela, alegia. Baina deia egiteari jarraitu egiten zaio.

Legegintzarako benetako aginpideak izanezko Legebiltzarra izateak nazio-mailako izeneko Legebiltzarrak bigarren mailan uztera eramaten duela? Bai, noski. Eta zer esanik ez europa-mailako Jaurlaritza eratzera iritsiko balitz; eta horretara iritsi, bai, horixe, iritsiko garela.

Baina zerbait aldatzen ari da eta datozen urteetan gehiago aldatzeko itxurak dira eta, hori, zurrumurru maila soilekoetatik gora, Europako Batzordeko Lehendakaritzan Delors-en ordezko izateko, une hauetan Jaurlaritzetako Lehendakari-lanetan diharduten hiru hautagairen izenak ematen direnetik aurrera. Izen hauek, zehatz-mehatz, Felipe González, Ruud Lubbers eta de Wilfied Martens dira. Hau da, Estaduko politika ranking-etan bigarren mailako zirenetatik buruzagietarako aldaketa gertatzen ari da.

Eta hau da piskanaka ikusten joango garena. Politikako pisua eta lehen-mailako politikariak joango dira, piskanaka-piskanaka, Elkarteko ekintza-eremura tokiz aldatzen. Oraingo Estaduetako goren mailako eta beren buruen jabe diren erakundeen kaltetan, noski.

Hortik dator UCD-ren Jaurlaritzetako Ministro ezaguna

De ahí que, si por un lado no puede, a la larga, negar la adhesión a quienes estén preparados para ella, y son tan Europeos como los demás, su aceptación supondrá un difícil cambio institucional.

Por otra parte, es ya un clamor la protesta contra el llamado "déficit democrático" de la Comunidad. Si es esencial en el concepto moderno de democracia la existencia de una división de poderes y el control mutuo horizontal del Gobierno por el Parlamento y el de ambos por el Poder Judicial, nos encontramos con que la Comisión, es decir, la gran burocracia europea, con poderes muy reales que nos afectan a muchos ciudadanos e incluso a la acción de nuestros Gobiernos, no está controlada por un Parlamento europeo que no tiene prácticamente ningún poder. Esta es una situación insostenible y que ha de reventar por algún lado en no demasiado lapso de tiempo.

Hace ya años que oía al Canciller Kohl manifestar con vehemencia que ya no es posible, si se tiene un mínimo de vergüenza, convocar a los ciudadanos europeos a elecciones a un Parlamento que no es tal. Y sin embargo se siguen convocando.

Claro que un Parlamento con poderes legislativos reales supone relegar los Parlamentos, llamados nacionales, a un segundo término. Y no digamos en el supuesto que se llegue, que se llegará, a la formación de un Gobierno europeo.

Pero algo está cambiando y promete cambiar más aún en los próximos años, desde el momento en que se habla, y no sólo a niveles de rumor, de tres candidatos, Jefes de Gobierno en activo en estos momentos, para sustituir a Delors en la Presidencia de la Comisión europea. Concretamente de Felipe González, de Ruud Lubbers y de Wilfied Martens. Es decir que de los segundones en los rankings políticos estatales se va pasando a los primeros espadas.

Y éste es el fenómeno que vamos a ir presenciando poco a poco. El peso político y los políticos de primera línea se irán desplazando poco a poco al marco de acción de la Comunidad. En detrimento de las supremas y soberanas instituciones de los actuales Estados.

De ahí la historia de aquel conocido Ministro de los Go-

UAB Biblioteca de Comunicació i Hemeroteca General

zen eta bere burua "politika-mailako burujabetzen" kontrakotzat aldarrikatzen zuen haren historia. Izan ere, aginpideak gorantz utzten joan behar zuen Estaduak, horretzaz gainera politika-aginpidea, hots, bhekaldera, administraritza toki batekoa izateari uzte hutsetik gorako zerbait, eskuz aldatzen bazen, "Espainia zertan geratuko zaigu!". Eta horixe da arazoa, "Espainia zertan geratuko da!".

Eta espainiar abertzale jator honek bezalaxe esaten dute beste batzuk Paris-en, Londres-en nahiz Konpenhagen. Eta haiei min ematen dielako utzi nahi ez izatea arrazoizko da. Ohizko burujabetzen benetako ordua gainean bait da. Mugak erortzen ari dira, toki bakoitzeko diruak epe jakinera ezabatuko dira eta, nahi bada nahiz ez bada, Estaduaren burujabetzaren muin, hain zuzen, diren Europako Gudaroste bakarra eta kanpo-arazotarako politika bakar bat iritsiko dira.

Thather andreari, Britaniako Sindikatuak ezabatu, ura bera ere norbanako-mailakotu ondoren (orain herri-hespilak ere norbanako-mailakotu nahian dabiltza), hark egindako lan guztia orain Bruselasetik, gehiengoa Sozialista duen Legebiltzar batetik, hankaz gora bota ziezaioketela ikusten zuen bakoitzean, ileak tente jartzen zitzaizkion. St. James gortea nahiz Westminster-eko Legebiltzarra gera litezkeeneko eskasia alde batera utzirik, noski.

Europako Batasunaren asmoa eta zimenduak guduko sarraskietatik irten-berri ziren gizaki ameslariek jarri zuten arren, gaur Europa aurrera joan, ez doa ametsei jarraiki, beharrak eraginda baizik.

Gertaldiak izango dira Europa aurrera egitera beharțuko dutenak. Esate baterako, hasieran esan dugun islam hertsizaletasuna. Nasser Suez-eko itsas-xidorraz ausardi haundiz jabetu, eta inglesek, frantzesek eta israeldarrek, hauei amerikarrek eta errusiarrek ezartzen zieten ito-larria zela eta, alde egin izana izan zen Europa eraikitzeko lehen-bultzadaren sustrai. Frantziak eta Inglaterrak ahaltsu izateari utzi ziotela lehenengo aldiz garbi ikusi zutenean, hain zuzen.

Golkoko guduan zer gertatu zen ahaztu zaigu ala? Edo Tarek Aziz-ek, Baker-ekin elkarrizketa izan ondoren, Elkarteko Kanpo-Arazoetako hamabi Ministroei elkarrizketa ukatuz egindako lotsagabekeria hura zer? Haiexek ematen zuten Edurnexuri eta 12 ipotxak!

Errusiko eta Yugoslabiako kasuak bereziki kontutan izanez, oraintsuagokoez gainera, adierazgarriagoak ere izan daitezkeen adibidetara-

biernos de UCD, que se proclamaba contrario a las "autonomías políticas" porque, dado que el Estado debía ir cediendo poderes hacia arriba, si además traspasaba poder político, es decir, algo que no sea mera descentralización administrativa hacia abajo, decía, "¡qué queda de España!". Y ese es el problema, "¡que queda de España!".

Y lo mismo que este buen patriota y nacionalista español, dicen otros en París, en Londres o en Copenhague. Y es lógico que les duela y que se resistan. Porque está llegando la hora de la verdad a las soberanías tradicionales. Las fronteras caen, las monedas van a desaparecer a plazo fijo y, se quiera o no, vendrá un único Ejército europeo y una única política exterior, que constituyen, justamente, el quid de la soberanía del Estado.

A la Sra. Thather se le ponían los pelos de punta, cada vez que veía que, después de haber deshecho los Sindicatos británicos, de haber privatizado hasta el agua (ahora quieren privatizar los parques públicos), pudieran, desde Bruselas, desde un Parlamento de Mayoría socialista, deshacer toda su obra. Aparte naturalmente de la precariedad en la que pudieran caer la corte de St. James o el Parlamento de Westminster.

Pero si la idea y los cimientos de la Unión Europea los pusieron hombres idealistas, recién salidos de los horrores de la guerra, hoy Europa no va avanzando por ideales, sino por necesidad.

Serán las realidades las que hagan avanzar Europa. Como ésa del fundamentalismo islámico que citábamos al principio. Precisamente el golpe de mano a Nasser apoderándose del canal de Suez y la retirada de las tropas inglesas, francesas e israelíes ante el garrote de americanos y rusos, estuvo en la raíz del primer impulso de construcción europea. Cuando Francia e Inglaterra comprobaron por primera vez que ya no eran poténtes.

¿O hemos olvidado lo que pasó en la guerra del Golfo? ¿O el desplante de Tarek Aziz tras su entrevista con Baker, negándose a recibir a los doce Ministros de Asuntos Exteriores de la Comunidad? ¡Qué sensación de Blancanieves y los 12 enanitos!

Caben ilustraciones más recientes e incluso más elocuentes, referentes sobre todo a los casos ruso y yugoslavo. Pero este marco de lugar y



koak eman litezke. Baina aurkitzen gareneko tokiak eta denborak ez du gehiagotarako ematen.

Joan-berri diren egunetan, jendeak jakintsutzat zeukan hemengo batek senperrenak eta bi esan zituen, bere ustez, kalte guztien errudun den euskal abertzaletasunaren aurka. Abertzaletasuna ikusi nahi badu, eserlekuan eseri eta eta Londres-era, Parisera, Madrilera begira, baita hitz potoloen azpikaldera begira jartzea izango du onena.

Baina arazo hauek epe ertain eta luzerakoak dira. Eta, dendorari eta premiei dagokienekoan, iraskunde-mailakoak baino lehenagotik daude ekonomi-alorrekoak.

## – Punttuan jartzea

Acenor-eko eta Labe Garaietako larrialdiaren inguruan oraindik orain izan diren sindikatu-mailako zalapartak zirela eta, euskal sindikatuburu batek esan zuenez, "Euzkadik duen nazio-mailako arazo nagusia berrindustriatzeari buruzkoa da".

Berrindustriatzetzat, ekoizgintza moderno eta lehiakorrerako gaur beharrezko den guztia, hots, azpiegituretatik teknolojia artekoa, ulertzen badugu, bete betean irizkide nau.

Urte asko dira, Aberri Eguneko mezuen, mitinen, hauteskundetarako ekintzaldien bidez, hori esaten ari garela.

Etzait iruditzen beste inon, beste alderdiren batek, "Europako erronka" izena eman genionaren garrantziaz, baztertuta geratzeko arriskuaz, azpiegiturak sortu beharraz, Atlantiko Ardatzaz, "pobrezian burujabetasuna ezinezkoa da"lakoaz, Arriaga honetan bertan orain lau urte guk hitz eta ohar egin genuen bezala egingo zuenik.

Gure ekonomiak, herri-enpresetan salbu, burua jaso zuenean, eta jendea harnasa lasaiago hartzen hasi zenean, "kezkaz betetako baikortasuna" zelako hura esan genuen, gainera zetorkigun aldia luzea eta gogorra izango zela bai bait genekien.

Eta gaur, "atezu apalak" esango genukeen aldia, ezkortasuna nagusi izanezko bolada, eta ez hemen, Euzkadin, soilik, baita Ameriketan, Frantzian, Inglaterran, etabarretan ere, jasaten ari garenean, guri hain zuzen dagokigu gauza ez dela horrenbesterainokoa eta etorkizunari begira dugun itxaropenak tinko jarraitzen duela esatea. Eta hau esan, ez dut inor gogoberotzearren, ez eta inori morala jasotzearren ere, esaten.

tiempo no da para más.

Estos días un personaje de aquí presuntamente intelectual despotricaba contra el nacionalismo vasco, causante, según él, de todos los males. Si quiere ver nacionalismo será mejor que tome asiento en una butaca y mire a Londres, a París, a Madrid, incluso por debajo de las grandes palabras.

Pero éstos son problemas de medio y largo plazo. Y antes que los institucionales están, en tiempo y en urgencia, los de índole económica.

## – La puesta a punto

Con ocasión de las recientes agitaciones sindicales en torno a la crisis de Acenor y de Altos Hornos, un líder sindical vasco decía: "el problema nacional número uno de Euzkadi es el de la reindustrialización".




Si entendemos por reindustrialización todo lo que hoy en día es necesario para un sistema de producción moderno y competitivo, es decir, desde infraestructuras hasta tecnología, estoy totalmente de acuerdo.

Lo venimos diciendo desde hace años, en mensajes de Aberri Eguna, en mítines, en campañas electorales.

Dudo mucho que en alguna otra zona, algún otro partido haya hablado, advertido, avisado de la transcendencia de lo que dimos en llamar "el reto europeo", el peligro de la marginación, la creación de infraestructuras, el Eje Atlántico, el "no hay soberanía en la pobreza", concretamente en este mismo Arriaga hace cuatro años.

Cuando nuestra economía levantó cabeza, salvo en la empresa pública, y la gente respiraba con cierto alivio, dijimos aquello del "optimismo preocupado", porque sabíamos que nos esperaba un largo y duro período.

Y hoy, cuando estamos viviendo una especie de "bajas presiones", de ola de pesimismo, no ya aquí en Euzkadi, sino en América, en Francia, en Inglaterra, nos toca precisamente a nosotros decir que no es para tanto y que nuestra esperanza de futuro está intacta. Y no lo sigo para animar ni levantar la moral a nadie.

Biblioteca de Comunicació i Hemeroteca General CEDOC

# I Asamblea General

1992.eko urte hau gogorra arrazoi askogatik izango da, bai, baina bestetik, gure buruak Olinpiadetako eta benetan gertatzen dena izkutatu besterik egiten ez duten urteurrenetako alaitasunez betetzen saiatuko ez ote zaizkigun bildur naiz.

Egia esan, ez txiroa ez aberatsa, ez horren haundia ez eta horren txikia ere ez den herri bat, Espainiako Estadua horietakoa bait da, urte berean, bi biloi pezetatik gora zenbat kostako diren jakitea inori ezinezko zaion Olinpiada, Sevillako erakusketa, trena barne, eta guztiaren borobilgarri, Madrid kulturako hiriburu izateko prestakuntza-lanetan hasi izana, Espainiak presa haundiz behar dituenak, eta denok, era guztietako azpiegiturak, hezkuntz erapidetza, teknoloji aldetikakoa batipat, sendotzea, behar bezala lan egingo duen telefono-sarea, behar bezala lan egingo duen postaritzako sarea direnean, presa haundiko premi sakonen aurretik show haundi eta iragankorrei nagusitasuna emanez, herriko lehentasunak era horretan mailakotu dituztenek hartu duten erabakia itxurarik gabekoa eta barka ezinekoa da.



Oraindik orain irakurtzen nuen berlindarrek Kohl Kanziller-ari egiten ziotela honek, estreinatu-berri den Alemaniko hiriburua 2000. urtean olinpiaden egoitza izan dadila lortzeko ezertxo ere egin ez duelako salaketa. Gaizkitxo etorriko litzaioke, bada, Berlini hain zuzen, une hauetan nazioarte-mailako show-a! Eta Hannover, Behe-Sajoniako Land-buru denaren haserrea ere aste honetan agertzen zen eta, hori, Theo Waigel, Errepublika Federal-eko Ogasuntza-Ministroak, hiri horretan berehala egitekoa duten Erakustaldirako, marko federal bat bera ere izendatzeko asmorik ez duela jakitera eman zielako.

Alemania da Europako laterririk indartsuena. Hala eta guzti ere, eta bere buruaren gorantza, berriro bat egin duen honetan batipat, mundu osoaren aurrean egitea komeni zaion arren, beste hau ere ondo asko daki, ekialdean dituen lurrak punttuan jartzeko beharrei eta Ekialdeko laterriekin bere gain hartutako bete beharrei erantzuteko, izan ba dituen eskuarte guztiak aski gutxiegi dituela, alegia.

Nik pentsatzen dudanez, Espainiako Jaurlaritzak ere, gaur ez zituzkeen erabaki horiek hartuko, edo orain bospalau urteko lukurreriaz betetako souflé hartako beroaldian hartu zituen baino askoz apaltasun haundiagoz hartuko zituzkeen.

Kontuak kontu, gaur Madrilen ez dago errepide nahiz

Si este 1992 va a ser duro por muchos conceptos, me temo que por otro lado se nos va a inundar de euforias Olímpicas y conmemorativas que oculten a muchos la verdadera realidad.

Creo, por cierto, que el hecho de que un país ni pobre ni rico, ni grande ni pequeño, como es el Estado español, se haya lanzado a preparar para un mismo año una Olimpiada, el alarde de Sevilla, tren incluído, y como guinda la capitalidad cultural de Madrid, con una inversión de al menos, nadie sabe cuanto más de dos billones de pesetas. En un momento en que lo que España necesita con urgencia, y todos, son infraestructuras de todo orden, fortalecimiento del sistema educativo, especialmente del tecnológico, una red de telefónica que funcione, una red de correos que funcione, quienes hayan jerarquizado de este modo las prioridades del país primando grandes y efímeros shows sobre necesidades profundas y urgentes han tomado una decisión política impresentable e imperdonable.

Leía recientemente que los berlineses acusaban al Canciller Kohl de no mover un dedo para conseguir que la reestrenada capital alemana fuera la sede olímpica del 2000. Con lo bien que le vendría precisamente a Berlín en estos momentos un show internacional. Y todavía esta semana se manifestaba asimismo el enfado de la ciudad de Hannover, capital del Land de Baja Sajonia, porque Theo Waigel, Ministro de Hacienda de la República Federal, les comunicaba que no pensaba destinar un solo marco federal para su próxima Expo.

Alemania es el país más potente de Europa. Y sin embargo, y por mucho que le interese su promoción mundial, precisamente en estos momentos de reunificación, es consciente de que todos sus recursos son pocos para atender a la puesta a punto de su territorio oriental y a los compromisos contraídos con los países del Este.

Pienso que tampoco el Gobierno español hoy hubiera tomado estas decisiones, o las hubiera tomado con mucha más modestia que como las tomó en la euforia de aquel soufflé especulativo de hace cuatro o cinco años.

El hecho es que hoy no hay dinero en Madrid para infra-

UAB Biblioteca de Comunicació i Hemeroteca General



trenbidetako azpiegituretarako, dirudienez guztien zuduzkoa den eta bere buruarentzako dirubideak berak egin beharko dituen Bilboko porturako dirurik. Penagarria zen oraindik orain, Madrid-Zaragoza autobidea inauguratzekoan, Madrid Europako autopista-sarearekin estekatu zela esaten Borrell Ministrioa ikustea.

Baina benetan gertatzen dena beste hau da. Eta ondorioak benetan gertatzen denetik atera behar dira. Horien aurrean jazarpenka eta zotinka aritzea, zenbaitek nahi luketenez, gu Madrilekin eten gabe muturka eukitzea, denbora eta morala galtzea da.

Lehenengo ondorioa: gauzak asmatu eta aurrera eraman, gure geure ahaleginez, gure geure eskuarteak kontutan izanez, eraman behar ditugula. Inor ez zaigu oparitan ezer ematera etorriko. Ez digute emango ez eta bidezkoa eta zor zaiguna'bera ere.

Orduan eta haundiagoa izango da gure erantzukizuna. Guk ere lan egin, geuretzat egiten dugu eta.

Aste honetan izan da Eusko Legebiltzarrean Euzkadi berrindustriatzea gai bakar izanezko eztabaidaketa.

Egia esan, ez dut antzeko eztabaidaketarik egin deneko beste Legebiltzar baten beraren berririk. Han izan ziren sindikatu eta ugazaba-erakundeetako buruen jarrera etsi-araztcko modukoa izan zen. Inork ez zuen busti nahi izan. Inork ez zuen Jaurlaritzaren egitasmoaren ordezko beste aukerarik aurkeztu, nola bada, gaiari buruz taiuzko azterlanik ere ez zuen aurkeztu eta!

Hain zuzen ere, sindikatu abertzale bateko goren-arduradun batek atzo egin zituen adierazpenetan, Industri-Egitamua "botuak ematen dituen eta batzuri beren aulki ederretan jarraitzen laguntzeko baino balio ez duen irudi-kanpaina besterik ez dela" zioen. Hori, jorraketa baino gehiago, zatarkeria da. Egitamuaren areduradun nagusi den Azua Lehendakariordeari aulki ederrean jarraitzeko asmoak leporatzea, Jaurlaritzako taldekide izatea, Jon Azuari, baita irabazbide aldetik begiratuta ere, zenbat kosta zaion jakin ba dakigunontzat, hori gezurrezko irain laidogarri hutsa da. Jorraketa hauek eta antzekoak alderdi garen aldetik ahaztea ez zaigu erreza izango.

Azua Lehendakariordeak indar berritu egin zuen Euzkadiren industriarako zaletasuna eta Euzkadin hemendik lau urtera lanean ariko direnen maila gaurkoa hainbatekoa izango dela ziurtatu zuen.

estructuras viarias o ferroviarias, el puerto de Bilbao, de interés general al parecer, ha de financiarse a sí mismo. Era penoso ver recientemente al Ministro Borrell, al inaugurar la autovía Madrid-Zaragoza, decir que se había conectado Madrid con la red de autopistas europeas.

Pero ésta es la realidad. Y las conclusiones hay que sacarlas a partir de realidades. Ante ellas el gastar el tiempo en protestas y en lágrimas como quisieran algunos, tenernos perpetuamente a la greña con Madrid, es una pérdida de tiempo y de moral.

La primera conclusión es que debemos planear y hacer las cosas contando ante todo con nuestro propio esfuerzo, con nuestros propios recursos. Nadie nos va a venir a regalar nada. No nos darán ni siquiera lo justo y lo debido.

Tanta más responsabilidad para nosotros. Porque también nosotros trabajamos para nosotros mismos.

Esta semana tuvo lugar en el Parlamento Vasco el debate monográfico sobre la reindustrialización de Euzkadi.

No conozco, por cierto, ningún otro Parlamento en el que haya habido semejante debate. Fue decepcionante la actitud de los líderes sindicales y patronales allí presentes. Ninguno se quiso mojar. Ninguno presentó no ya una alternativa al proyecto gubernamental, pero ni siquiera un estudio serio del tema.

Por cierto, lo que ayer declaraba un alto responsable sindical nacionalista, afirmando que el Plan Industrial "no es sino una campaña de imagen, que proporciona votos y que sólo vale para mantener sus poltronas". Es, más que una crítica una bajeza. El atribuir al principal responsable del plan, el Vicelehendakari Azúa, afanes de mantenimiento de poltronas, quienes sabemos lo que a Jon Azúa ha costado, aún en el ámbito de sus ingresos personales, el formar parte del equipo de Gobierno es una vulgar calumnia. Como partido no olvidaremos tan fácilmente éstas y otras críticas.

El Vicelendakari Azúa reafirmó la vocación industrial de Euzkadi y aseguró que en cuatro años Euzkadi tendrá el mismo nivel ocupacional de hoy.

UAB
Biblioteca de Comunicació
i Hemeroteca General
CEDOC



Ni Azuarekin bat nator. Ba dakit aldi latzak izango ditugula. Baina epe ertain eta luzera, eskas aldia gainditzez gainera, gure industri-aldetikako egiturak hobetuak izango ditugu, eta ez hori bakarrik, baita teknologi aurreratuetan ere sartuak izango gara.

Euzkadin garrantzi haundiko diruezarketak egingo dira. Baina kontua ez datza diruezarketetan soilik. Ba dira, López de Arriortuak egoki asko "Hirugarren industri-iraultza" esaten dionari aurre era arraskatsuan egin ahal izateko, gure industriak nolakoaren aldetikako aurrera-pauso garrantzitsua eman dezan, aurrerabidean diren egitasmo garrantzitsuak ere. Mundu-mailan lehiakorra izango den eta euskaldunoi poza sortzeko moduko lana ekarriko digun, enpresaritza-moduak aldatuko dituen eta langileari aintzindaritza haundiagoa emango eta ekoizpengintzarako ilusio haundiagoa sortuko dion industri-ehunaren garapena da kontua. Baita enpresen arteko harremanetarako erabide berriak sortzea eta gure enpresak euskal herrikoak ez diren besteekin estekatuko dituzten "joint venture" erabideak garatzea ere.

Hau zenbait ameskeriazko edo asmo hutsezko iruditu dakieke. Ez da horrela, ez, denbora lekuko. Aurrerabidean doa eta datorren hamar urtekoan egia izango da. Eta gutxieneko elkar-egokitasunez jokatzeko, ahaleginerako eta gure buruari uko egiteko gauza izan gaitezen neurrian, datorren hamar urtekoan aurrera-pauso haundia emana izango dugu. Izatez baikorra naizela egia da, baina, ez hori bakarrik, 2000. urteari be-



Yo estoy con él. Sé que vienen aún tiempos duros. Pero a medio y largo plazo no sólo habremos superado el bache, sino que habremos mejorado nuestras estructuras industriales y hasta habremos saltado a tecnologías más avanzadas.

En Euzkadi va a haber inversiones importantes. Pero no es tan sólo una cuestión de inversiones. Hay también proyectos importantes en marcha para que nuestra industria dé un salto cualitativo importante para afrontar con éxito lo que López de Arriortúa denomina, con acierto, la "Tercera revolución industrial". Se trata de desarrollar un tejido industrial, competitivo a nivel mundial, que proporcione a los vascos un trabajo ilusionante, que cambie los estilos empresariales y dé al trabajador un mayor protagonismo y una mayor ilusión en la producción. Se trata asimismo de crear nuevas formas de conexión entre empresas y de desarrollar formas de "joint venture" que imbriquen nuestras empresas con otras, no vascas.

Esto puede parecer utópico o voluntarista a algunos. No lo es, no lo es, al tiempo. Está en marcha y será realidad en el próximo decenio. Y en la medida en que tengamos un mínimo de cohesión, de esfuerzo y de sacrificio, en la próxima década habremos dado un serio salto hacia adelante. Es cierto que soy optimista por naturaleza, pero además estoy optimista de cara al 2000. No nos colocaremos a la cabeza de Europa. Pero tampo-

gira ere baikorra naiz. Europan ez gara aurreko muturrean jarriko, baina bazter geratu beharrik ere ez dugu izango.

Larrialdi berri honen erdian, eta hainbaten susmo txarren erdian eta beste hainbatek bete beharrei bizkar ematen dien honetan, EAJ-k, Europako erronkari begira, Euzkadi puntuan jartzeko aintzindaritza-lanari baietza ematen dio. Etorkizunari bildurrik izan gabe. Aintzindaritza hori gurekin batera susmo txarrik izan gabe joan nahi dutenekin eta bilakaldiko erantzukizunen ardura elkarrekin izateko gertu daudenekin zati-banatzeko prest.

co quedaremos marginados.

En medio de esta nueva crisis y en medio de las reticencias de tantos, y la falta de compromiso de otros tantos, el **PNV** acepta el liderato de la puesta a punto de Euzkadi de cara al reto europeo. Sin miedo al futuro. Dispuesto a compartir ese liderato con quienes quieran acompañarnos sin reticencias y asumir conjuntamente las responsabilidades del proceso.




Europako esparruak behea jota utzi gaitzake, baina alderantziz, oso berarizko eran indar eman dakiguke. EAJ-k bigarrenaren aldeko apustu egiten du, baita agintzen ere. Izan ere, nere adiskide amerikar diplomatikoak zioenez, "Europan edozer gauza gerta" bait daiteke, baita Euzkadi datorren hamar urtekoan, askatasun eta zuzentasuneko ongundera eramatea ere. ■

**Bilbon, 1992.eko urtarrilak 12.**

El marco Europeo nos puede hundir pero nos puede potenciar extraordinariamente. El **PNV** apuesta y promete lo segundo. Porque, como decía mi amigo el diplomático americano, "todo es posible en Europa", y también el llevar a Euzkadi en el próximo decenio a la prosperidad en libertad y en justicia. ■

**Bilbao, 12 de Enero de 1992**

UAB Biblioteca de Comunicació i Hemeroteca General CEDOC

Flash Composition, S.A.